

**BALDINTZAK: KONTUAN IZAN BEHARREKO GAI NAGUSIAK**

- ❑ **SIGPAC ERABILERA:** EGIAZTATU BERDINA DELA SIGPAC-EN ERABILERA ETA LURSAILAEKO LURZATIAREN BENETAKO ERABILERA. BAZKA IRAUNKORREKO ERABILERATIK (LARRE BELARDIA, ZUHAIXKA ERAKO BAZKA, BAZKA ZUHAITZ ETA GUZTI) LUR GOLDAGARRIKO ERABILERARA ALDATU AHAL IZATEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA LEHENENGO BAIMENA ESKATZEA MENDI ZERBITZUARI (jarri harremanetan zonako esku basozainarekin).
- ❑ **LARRATZE KOEFIZIENTEA:** EGIAZTATU SIGPAGEN MARKATUTAKO KOEFIZIENTEA BAT DATORRELA LURSAILEKO BENETAKO LARRATZE KOEFIZIENTEAREKIN. IRIZTEN BAZAIO KOEFIZIENTEAK BAT EZ DATOZELA, SASTRAKAK KENTZEKO LAN KONTROLATUAK EGIN (LEHENENGO BASOZAINAREGIN HITZ EGIN) EDO, BESTELA, ESKATU ALDATZEKO SIGPAC ERABILERA / LARRATZEKO KOEFIZIENTEA ENB-AN.
- ❑ **ALDAPA (%):**ESPARRUKO BATEZ BESTEKO ALDAPA. % 12 BAINO GEHIAGOKO MALDA EGONEZ GERO, EZIN IZANGO DA LURRA LANDU GOLDE BELARRIDUNAREKIN GEHIENEZKO ALDAPARANTZ, BELARKI LABOREAK DAUZKATEN LURZATIETAN. % 15 BAINO GEHIAGOKO MALDA EGONEZ GERO, EZIN IZANGO DA LURRA LANDU GOLDE BELARRIDUNAREKIN GEHIENEZKO ALDAPARANTZ, ZUREZKO LABOREAK DAUZKATEN LURZATIETAN. LABORE GUZTIETARAKO SALBUESTEN DIRA 1 HA BAINO GUTXIAGO DAUKATEN LURZATIAK ETA ZATIRIK ESTUENEAN 100 METRO BAINO GUTXIAGOKO ZABALERA DAUKATEN LURZATIAK. ZALANTZAZKO KASUETAN GALDETU ENB-AN.
- ❑ **EZIN DA ERAUZI ZUREZKO LABOREKO OINIK (MAHASTIA, OLIBONDOAK, ETA ABAR) BAIMENIK GABE.** BAIMEN HORI KASUAN KASUKO ENB-AN ESKATU BEHAR DA.
- ❑ **ARRISKU ZONA:** LURZATIA ARRISKU ZONAN BADAGO ZONA HORIETARAKO EKINTZA PLANA BETE BEHARKO DA. BATEZ ERE KONTU HANDIA IZAN BEHARKO DA **LABORE BAKOITZERAKO BOTA DAITEKEEN GEHIENEZKO NITROGENO KOPURUAREN MUGEKIN, BOTATZEKO ALDIEKIN ETA UR IBILGUEKIKO HURBILTASUNAREKIN.** BAI ONGARRI KIMIKOEI (ONGARRI KONPOSATUAK ETA NITROGENATUAK) BAI ORGANIKOEI (SIMAURRA, MINDA...) EZARRI BEHARREKOA.
- ❑ **HIGADURA ARRISKU HANDIKO ZONA:** HIGADURA ARRISKU HANDIKO ZONETAN DAUDE ARRISKU ZONETAN EGOTEAZ GAIN % 15EKO BAINO GEHIAGOKO ALDAPA DAUKATEN LURZATIAK. LURZATI HORIETAN EREITERAKOAN ONGARRIA BOTATZEN BADA, ONGARRIA LURPERATU EGIN BEHARKO DA.
- ❑ **UR IBILGUETAKO BABES ZERRENDA:** BABES ZERRENDA ERRESPEKTATU BEHAR DEN LURZATIETAN, TARTE HORI 3 METROKOA IZANGO DA ONGARRIA BOTATZEKO ARRISKU ZONETAN KOKATUTA DAUDEN LURZATIETAN, ETA METRO 1EKO ARRISKU ZONETAN KOKATUTA EZ DAUDEN LURZATIETAN. GAI FITOSANITARIOAK BOTATZEKO, ZERRENDA HORI 5 METROKOA IZANGO DA, ORO HAR, LURZATI GUZTIETAN. BABES ZERRENDA HORRETAN, KASUA ZEIN DEN, EZIN IZANGO DA BOTA INOLAKO ONGARRIRIK, EZ ETA GAI FITOSANITARIOK ERE, ZEINAHI DELA URTE SASOIA. BABES ZERRENDA HORRETAN MANTENTZE, LARRATZE EDO MOZTE LAN MEKANIKO AZALEKOAK EGIN AHALKO DIRA, URTEKO EDOZEIN SASOITAN, BAITA BASA FLORAREN NAHASKETAK EREIN ERE, BALDIN ETA BABES ZERRENDAN EZ BADAGO NEKAZARITZA EKOIZPENIK ETA NEKAZARITZA EGOIZPEN HORRETATIK BEREIZTEN BADA.
- ❑ **USTIATEGI GUZTIEK NMEO-N INSKRIBATUTA EDUKI BEHARKO DUTE GAI FITOSANITARIOEN TRATAMENDURAKO DAUKATEN TALDEA ETA HAIETAKOREN BAT EOEO-N INSKRIBATUTA EGON BEHARKO DA.** HALA EZ BADA, HAIEN USTIATEGIETAN GAI FITOSANITARIOEN TRATAMENDUA NOLA EGITEN DEN JUSTIFIKATU BEHARKO DA, EOEO-N INSKRIBATUTA DAGOEN, MAILA GAITUKO TXARTELA DAUKAN ETA LANGARGAILUA NMEO-N INSKRIBATUTA DAUKAN PERTSONAREN BATEKIN SINTATUTAKO TRATAMENDUEN KONTRATU BATEN BIDEZ.
- ❑ **ZUTABEAK –GAI FITOSANITARIOEN BERARIAZKO ZONA– ADIERAZTEN DUENA DA ESPARRU BAKOITZA ZEIN ZONA MOTATAN KOKATUA DAGOEN, GAI FITOSANITARIOAK BOTATZEAN DAGOEN ARRISKUARI DAGOKIONEZ. (DATU HAU LANDA KOADERNOAN ESKATZEN DA).**
- ❑ USTIATEGIAN ESPARRUREN BAT BADAGO **GIZA KONTSUMORAKO UR HARTUNEAK DAUZKANA**, ZEIN EZAUGARRI DITUEN ETA ZEHATZ-MEHATZ NON KOKATUTA DAGOEN ADIERAZIKO DA, ESPARRUEN ZERRENDAREN ONDOREN JOANGO DEN TAULA BATEAN.
- ❑ **EDUKI BEHARREKO UR EMAKIDA EDUKIKO DUTE UREZTATUKO DIREN LURZATI GUZTIEK.** EMAKIDA HORI UREZTATZAILEEN ELKARTEEK EGINDAKO EGIAZTAGIRIAREKIN JUSTIFIKATU AHALKO DA, ETA PUTZUETATIK EDO IBAIETATIK URA ATERATA UJEZTATZEN BADA, EBROKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAREN ZUZENEKO EMAKIDAREN BIDEZ.
- ❑ **LUGORRI ADIERAZITAKO LURZATIAK BELAR GAIZTOETATIK GARBI EDUKI BEHARKO DIRA URTE GUZTIAN.** KONTUZ, BEHARREZKOA GREENING-A BETE AHAL IZATEKO.
- ❑ **INGURUMEN ERALDAKETAREN MENDEKO BAZKA GISA KATALOGATUTAKO BAZKA IRAUNKORREKO LURZATIAK (PS, PA ETA PR) EZIN DIRA EZ LUBERRITU EZ BERRIZ ERE EREIN.** LURZATI HORIETAN MANTENTZE LANAK BAINO EZIN IZANGO DIRA EGIN.
- ❑ **INGURUMEN ERALDAKETAREN MENDEKO BAZKA GISA KATALOGATUTA EZ DAUDEN BAZKAK LUBERRITU AHALKO DIRA, BASOZAINAK BAIMENA EMATEN BADU HORRETARAKO.** BAZKA HORIEK BERRIZ ERE EREIN AHALKO DIRA, BALDIN ETA JUSTIFIKAZIO AGIRIRIK BADAGO (HAZIA EROSI IZANAREN FAKTURA ETA LANDA KOADERNOAN LANAK JASOTZEA).